¿Y por qué hemos votado a favor a esto? Teniendo en cuenta que el artículo 26 de la Ley de Concerto Económico determina que, efectivamente, el Impuesto concertado sobre el Valor Añadido también debe utilizar las mismas reglas de contenido y forma que las establecidas en cada momento por el Estado, debemos o deberíamos incluir en la normativa del Territorio Histórico de Bizkaia dichas modificaciones tributarias, y con ese contenido concreto. La norma tributaria de nuestro Territorio Histórico de Bizkaia, en su artículo 8, establece que la Diputación podrá dictar Decretos Forales Normativos con el mismo rango que la Norma Foral, entre otros, cuando la adaptación normativa deba ser preceptiva por las mismas normas sustantivas y formales existentes en el Territorio Histórico de Bizkaia en el territorio de régimen común. Y entendemos que es el caso y es lo que ha hecho la Diputación Foral a través de este decreto foral normativo. En realidad, no sólo se ha corregido un error detectado en un decreto foral normativo anterior a través de una disposición adicional, sino que se ha adaptado nuestra norma foral del Impuesto sobre el Valor Añadido. Y por eso ha sido nuestro voto favorable. No hay nada más que discutir.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Lerma Mentxaka. Ahora sí, punto 3 del orden del día.



El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Decreto Foral Normativo (Transposición) ([R.E.11/E/2021/0000185](#))

**Autor:** Diputación Foral de Bizkaia

**Asunto:** Decreto Foral Normativo 2/2021, de 19 de enero, de trasposición de la Directiva (UE) 2017/952 del Consejo de 29 de mayo de 2017, por la que se modifica la Directiva (UE) 2016/1164 en lo que se refiere a las asimetrías híbridas con terceros países.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2021/0000185](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (6A)

**Expediente:** ([11/A/03/0002024](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Dekretu Arauemailea (Transposizinoz)  
([11/E/2021/0000185SE](#))

**Egilea:** Bizkaiko Foru Aldundia

**Gaia:** 2/2021 Foru Dekretu Arauemailea, Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren transposizioa egiten duena; izan ere, horren bidez, 2016/1164 (EB) Zuzentaru aldutzen da, hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoiei dagokienez

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2021/0000185SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (6A)

**Espedientea:** ([11/A/03/0002024](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante de la Diputación, señora Unzueta Torre, tiene la palabra.

La Sra. **UNZUETA TORRE** andreak: Sí, gracias. El 5 de octubre de 2015, la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económico, la OCDE, hizo públicos los últimos informes sobre los quince puntos de acción contra la erosión de la base imponible y el traslado de beneficios: BEPS. El Consejo Europeo recogió estos informes en sus conclusiones del 8 de diciembre de 2015 y subrayó la necesidad de encontrar soluciones comunes y a la vez flexibles que se ajusten a lo señalado en la Unión Europea.

Por su parte, la Comisión Europea, con el objetivo de determinar las conclusiones del proyecto BEPS de la OCDE, presentó el 28 de enero de 2016 un paquete contra la elusión fiscal, en cuyo marco se aprobó la Directiva 2016/1164 del Consejo, de 12 de julio de 2016, por la que se establecen normas contra las prácticas de elusión fiscal que afectan directamente al funcionamiento del mercado interior.

Kontseiluaren 2016ko uztailaren 12ko 2016/1164 Zuzentarauak asimetria hibridoen aurka borrokatzeko esparru bat ezarri eban, baina gerora zabaldu egin eban Kontseiluaren maiatzaren 29ko 2017/952 Zuzentarauak, asimetria hibridoak modu globalagoan neutralizatzeke arauak ezartzen dituanak, hirugarren herrialdeak inplikatzeko dabezanak barruan jasota.

Kontseiluaren maiatzaren 29ko 2017/952 Zuzentarauak asimetria hibrido batzuk jasoten ditu, ELGEren BEPS proiektuko 2. ekintzari buruzko azken txostenean ezarritakoan oinarrituta, eta eurok ezabatzeke behar diran arauak ezartzen ditu, lehenengo mailako agindu bat arautuz, asimetria hibrido bakoitza neutralizetako urtenbiderik egokiena dala ulertuta, eta bigarren mailako agindu batez, aplikatu beharrekoa lehenengo mailako agindua bete ez danean, dala Arauaren trasposizinoan eretxi ezbardina dagoalako, dala asimetriak hirugarren Estatu bateri eragiten deusalako horren aurkako babeste neurriak onartu barik daukazana.

Testuinguru horretan, Foru Dekretu Arautzaile honen bidez, Kontseiluaren maiatzaren 29ko 2017/952 Zuzentarauan jasotako arauak Bizkaiko Lurralde Historikoaren ordenamendura lekualdatzen dira, eta Soziedadeen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 Foru Arauan txertatzen dira. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, a usted, señora Unzueta Torre. Y a continuación sometemos a votación el Decreto Foral Normativo.

¿Votos a favor? ¿Votos en contra? ¿Y abstenciones? El resultado ha sido el siguiente: con un total de 49 votos, 33 a favor, no ha habido ningún voto en contra y 16 abstenciones. Por tanto, se aprueba el Decreto Foral Normativo.

A continuación pasamos al turno de explicación de voto, para lo cual tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular, señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Hemen esan dan moduan, bigarren foru-dekretu arauemaile honen helburua 2016/1164 Zuzentarauaren transposizioa egitea da, 2017/952 Zuzentarauan egindako zabaltzeak emandako idazketaren transposizioa, hain zuzen be, soziedadeen gaineko zergari buruzko foru-arauan eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko foru-arauan txertatuz. Hori dala-ta, gogora ekarri da gai honen jatorria ELGAren zerga-elusinoaren, zerga-oinarrien higaduraren eta mozkinen trazaduraren aurkako proiektua dala, ingelesezko BEPS akronimoagaz ezagutzen dana, eta, ildo horretan, ELGAK hainbat gomendio egin ditu asimetria hibridoek eragindako zerga-ondorioak neutralizetako, hau da, ordainketa berak bi jurisdikzinetan bi kenketa izatea.

Laburbilduz, sistema fiskal nazionalen artean dagozan desadostasunak eta oinarri ezak aprobetxatuz, onurak zerga gitxi edo bape ordaintzen ez diran lekuetara artifizialki aldatzeko erabilten diran plangintza fiskaleko estrategiak dira berbagai ditugunak; izan be, kapitalaren mugikortasun gero eta handiagoa eta 21. mendeko negozio-eredu barriak dirala-ta, arazo larria bihurtu da ogasunentzat eta diru-bilketarentzat. Agirikoa da egunetik egunera arau-corpus handiagoa eta tresna gehiago sartzen dirala zerga-elusinoaren aurkako borrokan. Eta hori, zalantzarik gabe, talde honek partekatzen eta babesten dau erakunde guztietan. Baina egia da ez dala aitatu, gure ustez gertatu dana dala Foru Aldundiak ez dituala bere etxeko lanak egin. 2017. urteko zuzentarau baten ganean gabilz, 2021ean gure ordenamendura lekualdatzen gabilzana, eta hori Europako Batzordearen errekerimendu baten ostean, eta aldaketa hori egiteko luzapen-epean.

Nik gogorarazi gura dot araudi oso konplexu baten aurrean gagozala. Nire taldea ez da gai ez egun baten, ez bitan, ez egun gitxitan, hain konplexua dan gai baten azterketa egin ahal izateko. Hau da, Aldundiak, halako gaietan beharren daukazan personakaz, urteak euki ditu hori aztertzeke, eta asmoa da guk, foru-arauaren proiektu baten bidez egin beharrean, foru-dekretu arauemaile baten bidez egitea. Hori aurreikusita dago preminazko kasuetarako, baina, hain zuzen be, diputaduen kongresuan tramitetan dabilz. Eta zuek han, jaun-andreok, estatu-kontseiluaren irizpen bat daukazue, gai hau aztertu eta zuen jarrera finkatu ahal izateko. Gu, egun gitxian, hain konplexutasun handiko gaia...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Amaitu, mesedez.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Ez gara gai... Ontxe amaituko dot, mahaiburu andrea, eskerrik asko. Jarrera bat erantzukizunez finkatu ahal izateko, nahizta,

jakina, zerga-ihesekeko prozesuen aurka gagozan eta neurri guztiak babestu ditugun. Baina, esan deutsuedan moduan, ezin dogu ardurabakokeria hori egin.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Gracias, señora presidenta. Lehenengo eta behin, gobernu-taldeari esan gura neuskio egokia litzatekeela Europako zuzentzaruen transposizioetarako prozedura bakarra ezartzea, eta, gure ustez, logikoa danez, foru-arauak aldatzearena izan beharko litzateke, foru-erakundeak antolatzeke 387 foru-arauan irakurten badogu, ikusiko dogu hori dala egokiena. Hobeto horretan foru-dekretu arautzailetan baino.

Dekretuaren edukiari helduz, zuzentzari barri honek handitu eta hobetu egiten dau 2016koa, elusino fiskalaren aurkako paketeari jagokona, eta erreformeagaz eragotzi gura da multinazional handien ingeniarietza fiskala zergak saihesteko. Aurkeztu deuskuzuen dekretuak zehatz-mehatz jasoten ditu zuzentzariak proposatzen dituan aldaketak, eta, horretarako, aukera desberdinak eskaintzen ditu. Halanda be, barriro be, eta zoritxarrez, zuzentzari indarbakotu baten aurrean gagoz, Europar Batasunak zerga-arloan egiten dituen gauza gehienak bezala, esan beharra dago. Adibidez, interesen kengarritasuna mozkin operatiboaren % 30era mugatzen da, eta zifra hori arbitrarioa izateaz gain, zerga-oinarriaren % 30 fiskoari saihesteko aukera ematen du. Gure ustez, egokiagoa litzateke baloratzea interes-fluxu hori sortzen daben maileguak badaezpadaoak diran edo justifikauta dagozan. Beste adibide argi bat da diru-sarrerak ez dirala sartzen gitxienez % 10eko karga-tasa nominalaren pean egon arren; hori zerga-lehia beherantza legitimetako modu lotsabako bat da, Holandak, Irlandak edo Luxenburgok egiten dabena, gero han, zer kasualidadea, soziedadeen gaineko zergaren karga-tasa % 12,5ekoa dala.

Testuan, era berean, behin eta barriro parekatuten da Europar Batasuneko estatu kide izatea eta zergapetze bikotzeko hitzarmena daukien estatuak, eta hori nahiko eztabaidagarria izan daiteke, gure bazkide europar batzuek egiten dabezan beherantzko lehia fiskaleko estrategiak ezagututa. Hasieran esan dodan moduan, asmo oneko Europako zuzentzaria, behintzat aurkezpenean, baina bidean gauza asko itxi eta indarbakotuta heldu dana. Horregaitik guztiagaitik, abstenidu egin gara. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Ortiz Zaballa, tiene usted la palabra.

El Sr. **ORTIZ ZABALLA** jaunak: Gracias, señora Presidenta, de nuevo. Beno, urtarrilaren 19ko 2/2021 foru-dekretu arauemailean, Europar Batasunaren zuzentzariaren transposizioa egiten da hirugarren herrialdeekiko asimetria hibridoetara jagokenez; ia ezebeaz, halako izenagaz. Itzultzen ahaleginduko gara, ikusten eta entzuten dagozan guztiak ulertu daien. Egia esan, dekretu honen bidez, multinazionalak zergen arloan estadien artean dagozan desadostasunez baliatzea eragotzi nahi da, jagokona baino zerga gitxiago ordaindu edo ez ordaintzeko. Ahal den neurrian, finantza-ingeniarietza dalakoa eragotzi gura da. Soziedadeen gaineko zergari eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari eragiten deustie batez be; 15 ekintza-puntu dira zerga-oinarriaren bersinoaren eta mozkinen lekualdaketaen aurka. Euskal sozialistok edozein zerga-elusinoaren aurka gagoz, eta horregaitik bozkatu dogu dekretu hori baliozkotzearen alde.

Dekretu hori baliozkotzean, Bizkaiko zerga-ordenamenduan sartzen dira soziedadeen gaineko zergari eta persona fisiko ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari

buruzko 2017/952 Zuzentarauan jasotako arauak, eta bete egiten dogu otsailaren 28a baino lehen onartzeko Europako Batzordearen konpromisoa. Azken baten, asimetria hibridoek buruzko arauak txertatzen dira, zerga-saihestearen praktiken aurkako arauak ezartzen dabezanak, eta barruko merkatuaren funtzionamentuan zuzenean eragiten dabenak. Horregaitik guztiagaitik, lehen esan dodan moduan, euskal sozialistok dekretu hau baliozkotzearen alde bozkatu dogu. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Nosotros hemos tenido tres razones para la abstención. La primera, que es un paso pero no es suficiente, que no asume todas las asimetrías híbridas. Y que andamos tarde y, por eso, ha habido que tomar una vía de urgencia.

Sabemos que las multinacionales, a través de la ingeniería fiscal, la utilizan para erosionar las bases imponibles y desplazar artificialmente los beneficios, y por si fuera poco, estas asimetrías facilitan el salto a los paraísos fiscales, y no hace falta decir que esta ingeniería fiscal tiene un coste enorme para los ciudadanos en detrimento de las infraestructuras de ciencia, educativa, sanitaria y de los servicios sociales públicos.

Por lo tanto, acabar con esa ingeniería fiscal es un objetivo prioritario para nosotros, porque los que más tienen en este mundo no pagan los impuestos que les corresponden, ya sean multinacionales o ricos, o ambos. Y este es el objetivo de esa Directiva: garantizar que las multinacionales no puedan reducir de forma artificial lo que hay que pagar en el impuesto de sociedades.

Por tanto, la acción de la OCDE en 2015 y las Directivas de la Unión Europea son pasos, pero se quedan cortos. Se quedan cortos porque el objetivo debe ser, a nuestro juicio, fijar una base imponible común y apostar por un tipo tributario unificado en la Unión Europea. Ha habido largas discusiones sobre el tema, pero no se ha conseguido nada. Y si no se unifican las bases imponibles y los tipos, sabemos que las multinacionales, sea Arcelor Mittal, sea Nike, o sea Google... sabemos en qué países ponen sus matrices.

La segunda razón para la abstención es que la Directiva no pone en cuestión todas las asimetrías híbridas, sino unas pocas. No ha dado pasos para evitar asimetrías en instituciones de inversión colectiva, empresas de capital riesgo, o actividades bancarias.

Y, por último, hay que decir que se ha presentado con urgencia, porque vamos tarde. El plazo finalizaba el 31 de diciembre de 2019. Se amplió el plazo de dos meses, pero termina a finales de este mes. Creemos que es urgente, imprescindible, pero porque no se han hecho los trabajos antes, se ha mencionado antes, que hay que hacer una propuesta de este tipo modificando la norma foral, la anterior era sencilla, esta es verdad que es muy compleja y merece más debate. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias y la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Díaz Insausti, tiene usted la palabra.

La Sra. **DÍAZ INSAUSTI** andreak: Gracias, señora presidenta y buenos días a todos. Bueno, por nuestra parte, como se ha visto, hemos votado a favor de este decreto foral, porque es una directiva que viene de Europa, y es un tema que se quiere armonizar a nivel

europo. Europako zuzentarau hori multinazionalei zuzenduta dago batez be, eta horregaitik aldatu dira soziedadeen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga. Eta horren helburua da enpresa handiok Europar Batasunean dagozan arau-desadostasunak edo jurisdikzino ezbardinak aprobetxetea eta, holan, zerga horreen zerga-oinarriak deslokalizatzea eta, azkenean, inon ez ordaintzea.

Zuzentarau horren bidez, enpresa batzuek apliketan daben plangintza fiskal gogorra saihestu gura da, eta, holan zergak ordaindu behar dabezan lekuan eta kopuruan ordaintzea lortu. Bai Foru Aldundiak bai Espainiako agintariek konpromisoa hartu eben Batzordeagaz zuzentarau hori otsailaren 28rako onartuta eta transposituta egon eiten, eta horregaitik ekarri da hona foru-dekretu arauemaile baten bidez. Hain zuzen be, horrexegaitik ezin da foru-arau bidez egin, bestela epea ez litzatekelako beteko, foru-arau bat onartzeko prozedura 4 edo 5 hilabete luzatuko litzateke eta.

Ez da egia kongresuan izapideak egiten dabilzanik, otsailean egingo da, eta onartu egingo da edo errege lege-dekretu baten bidez izapidetzeko ahalegina egingo da, eta Konstituzio Auzitegiak esan dau errege lege-dekretua eta foru-dekretu arauemailea erabili daitekezala transposizino-epea igaro dan zuzentarau baten transposizinoa egin behar danean eta arau-hauste-prozedura bat dagoanean. Izan be, esan dodan moduan, ezin da foru-arau baten bidez egin, adostutako epea ez litzatekeelako beteko, Espainiako gainerako erakundeakaz zein Batzordeagaz bezala. Eta alde horretatik, tira, ados gagoz zuzentaruaren helburuagaz, eta horregaitik emon dugu aldeko botoa. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, a usted. Y los puntos 4, 5, 6 y 7 del orden del día se debatirán conjuntamente.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2020/0002436](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 12/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre la Renta de no Residentes.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2020/0002436](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (8A)

**Expediente:** ([11/A/07/0001713](#))

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2020/0002437](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 11/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto Sobre Sociedades.

**Documento Principal:**

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2020/0002436SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 12/2013 FORU ARAUA aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2020/0002436SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (8A)

**Espediente:** ([11/A/07/0001713](#))

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2020/0002437SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 FORU ARAUA aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2020/0002437SE](#))

[\(R.E.11/E/2020/0002437\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (9A)

**Expediente:** [\(11/A/07/0001714\)](#)

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral [\(R.E.11/E/2020/0002438\)](#)

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 2/2013, de 27 de febrero, del Impuesto Sobre Patrimonio.

**Documento** **Principal:**  
[\(R.E.11/E/2020/0002438\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (10A)

**Expediente:** [\(11/A/07/0001715\)](#)

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral [\(R.E.11/E/2020/0002444\)](#)

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

**Documento** **Principal:**  
[\(R.E.11/E/2020/0002444\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (11A)

**Expediente:** [\(11/A/07/0001717\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (9A)

**Espedientea:** [\(11/A/07/0001714\)](#)

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena [\(11/E/2020/0002438SE\)](#)

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 FORU ARAUA aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2020/0002438SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (10A)

**Espedientea:** [\(11/A/07/0001715\)](#)

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena [\(11/E/2020/0002444SE\)](#)

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2020/0002444SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (11A)

**Espedientea:** [\(11/A/07/0001717\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Es el turno del grupo que ha presentado las iniciativas; por lo tanto, tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, la señora De Madariaga Martin.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Gracias, señora Presidenta. Tira, Elkarrekin Bizkaiatik zerga-erreformarako proposamen bat ekarri dogu aintzat hartzeko. Erreforma horrek PFEZaren zergari, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari, ondarearen gaineko zergari eta soziedadeen gaineko zergari eragiten deusie.

Proposamen egokia da. Krisi sanitarioaren, ekonomikoaren eta sozialaren testuinguruan eta atxakian sortu da, eta hurrengo urteetan erantzun erabakigarria emon behar jako. Horretarako, baliabide ekonomiko nahikoak euki behar dira. Baliabide horreei esker, inbersino-gaitasuna handitu ahal izango dogu. Eta, ildo horretan, diru-bilketan planteatzen dogun zerga-erreformak izango leukezan ondorioek gitxi gorabehera 450 milioi euroko hazkundera ekarriko leukie, eta horrek herritarrak eta lurraldea berreskuratzera bideratutako politikak sustatzen lagunduko leuke.

Aldi berean, asmo handiko proposamena da, zerga-sistemaren erreforma sakona proposatzen dauelako, gizarte kohesionatua, bidezkoa eta iraunkorra lortzeko

helburuagaz. Erreforma horren oinarria aberastasuna birbanatzea eta gure herrialdeak eta gure gizarteak nahitaez bete beharreko erronka gisa dituan eraldaketak bultzatzea da, iraungitze-data gertuegi daukiena, adibidez gizonen eta emakumeen arteko bardintasuna edo klimaren krisia.

Herrialde honetan urteetan zehar eregi dan zerga-sistemaren ondorioz, Europar Batasun osoko zerga-presino txikienetako bat daukagu, eta zerga-presinoa, gainera, neurritz kanpo egokitu da lan-errentetan eta errenta-segmentu baxuetan.

Politika fiskal horrek ondare eta aberastasun handiak jagoten ditu, krisi ekonomikoak ia eragiten ez deusienak; bitartean, erosteko ahalmen gero eta txikiagoa daukan gizarte-gerua handitzen doa, gero eta zailtasun gehiago dituana oinarrizko beharrak asetzeko.

Eredu fiskal horrek mesede egiten deusie multinazionalei, nazioarteko finantza-funtsei, azken baten, sektorerik pribilegiatuenei, kenkarien bateria agortezinagaz, beharpenakaz soziedadeena moduko zergetan. Sistema fiskal horrek ez dau neurri bakar bat be jartzen gizonen eta emakumeen arteko desbardintasunen aurka borrokatzeko. Sistema fiskal guztiz klasista da.

Txarto batzen da, modu bidegabe eta desorekatuan, eta ondorioak gero eta agiriagokoak dira. Desbardintasun sozial gero eta handiagoak. Gehien daukienen eta Euskadiko gainerako gizartearen arteko aldea gero eta handiagoa da.

Zerbitzu publikoak hondatzea da beste ondorioetako bat. Hori sektore batzuek salatu izan dabe, Covid-19k eragindako krisia baino lehen be, baina pandemiagaz danen begi aurrera etorri da.

Azken baten, sistema fiskal horrek haustura sozial arriskutsu batera garoa, eta abiadura biko Euskadi bat finkatzera. Horregaitik guztiagaitik aurkezten dogu proposamen hau.

Lehenengo eta behin, PFEZ erreformatzeko proposamenari jagokonez. Abiapuntutzat hartzen dogu, krisi ekonomiko honetatik urtetea errazteko, beharrezkoa dala errenta txikienek eta diru-sarrerren galeragaitik kaltetuenek baliabide gehiago izatea bermatuko daben neurriak sartzea.

Eta hori lortzeko, salbuespenak, kuota-kenkariak eta errenta baxuenen karga-tasak hobetzea proposatzen dogu.

Baina, aldi berean, krisiak gitxien kaltetu dituenek proportzino handiagoan lagundu behar dabe. Izan be, errenta altu horreek dira, hain zuzen be, zerga-figura horrek gero eta progresibotasun handiagoa galtzearen mesede gehien hartzen dabenak. Eta bada garaia ahal daben neurrian laguntzeko. Eta horretarako, zerga progresiboagoa diseinatu dogu, eta errenta oso altuei mesede egiten deusien salbuespenak kentzen dauena, adibidez dibidenduei edo pensino-planetarako ekarpenei lotutakoak.

Era berean, PFEZ garrantzi handiko zerga da emakumeen eta gizonen arteko arrakalak eta desbardintasunak murrizteko eta ezabatzeko, eta horregaitik proposatzen dogu lan-etekinei emoten jakezan hobariak aldatzea, emakumeei mesede eginez, batez be errenta baxuenak daukiezanei, bai eta guraso bakarrek familiei be.

Bestalde, kapital-errentei laneko errentei baino tasa txikiagoakaz pribilegiatzeari itxi behar jako. Ez da bidezkoa lan-errenten kasuan % 40tik gorako tasa marjinalak egotea, eta aurrezkien kasuan, ostera, % 25eko gehieneko tasa marjinala izatea. Eta horregaitik proposatzen dogu lan-errentek eta aurrezki-errentek jasoten daben tratamentua

bardintzea. Ez dauka zentzurik, ezta interes sozialik be, errentismoa saritzeak, egunero lanera joaten diranek zerga-tasa altuagoei aurre egin behar deutsien bitartean.

Bigarren, Ondarearen gaineko Zerga erreformatzeko proposamenari jagokonez, 2019an 77,4 milioi euro batu ziran Bizkaian zerga horregaz. Diru-bilketa barregarria da, eta egungo ereduak errenta altuentzako eta ondare handientzako zerga-ordainketa txikia ezartzearen ondorio. Eta zer lortuko dogu horregaz? Ba, aberastasuna esku gitxitan metatzen laguntzea eta, aldi berean, publikoa makaltzea. Hain da hori holan, errenta oso altuek eta ondare handiek daukiezan onura fiskalak dirala-ta, krisiagaz irabazten daben bakarrak dira; gainerako herritarrek hile amaierara zelan heldu bila ibiltzen dan bitartean. Aurten, 2020an, azarora arte bakarrik, eta krisi betean, 80,3 milioi euro batu dira. 2019an bildutakoa baino 3 milioi euro gehiago.

Ez dauka inongo justifikaziorik, zerga hau eraginkortasunez ez erabilteak, eta ez dauka inongo justifikaziorik aberastasunaren banaketan dagozan muturreko desbardintasunak zuzentzeko interesik ez egoteak. Eta horregaitik, derrigorrez egin beharrekoa da zerga honen progresibidadea handitzea, aberastasun handiei zerga-tasak gehituz. Baina horregaz batera, salbuetsitako gitxienekoa 600.000 eurora murriztea be bai. Baina derrigorrez egin beharrekoa da, era berean, zerga honek jasoten dituan beste pribilegio batzuk ezabatzea: pensino-funts pribatuak, EPSVak, edo inbersinorako edo kapitalizaziorako Europako funtsetan parte hartzea. Eta unea da atzeratu ezin diran eraldaketak bultzatzen dabezan jardueri tratamentu hobea emoteko, klima-krisiaren aurkako borroka kasurako.

Hirugarren, Soziedadeen gaineko Zerga erreformatzeko proposamenari jagokonez. Nabarmen be nabarmena da gobernuek ez kutsatzeko hartu dabezan neurriek jarduera ekonomikoan izan daben eragina. Itxierak, eta gure lurraldeko enpresa askorentzat diru-sarrerak galtzea. Eta horri soziedadeen gaineko zergari egin jakozan erreforma desegokiak eta ezgaraikoak gehitzen badeutsaguz, zerga kezkarri horren bilketak behera egin dau. 2019an, 2018an baino 160 milioi gitxiago batu ziran. Eta Elkarrekin Podemos- IUk uste dau ezinbestekoa dala 2018ko erreforma lehengora ekartea, eta deslokalizazino-tentazinoak saihestearren, zerga hori harmonizatzea proposatzen dogu lurralde erkidean indarrean dagoan zerga-tasagaz, baina beti be Batzarrok etorkizunean gitxienez % 28raino igoteko bidea zabaldua. Era berean, zenbait jarduera-sektore bereziki pribilegiatuak dira zerga honegaz, eta jarduerok, komunari ez laguntzeaz gainera, jan egiten dabe, kasurako inbersino kolektiboko erakundeak, arrisku-kapitaleko soziedadeak edo errentismoari mesede egiten deutsien eta ezabatzea proposatzen dogun higiezin errentamentu-jarduerak.

Bestalde, ez gara enpresetan etekinak sortzearen aurkakoak, beti be jarduera ekonomikoan berrinbertitzen badira. Horregaitik, mozkinak atxikitzeo pizgarri bat proposatu dogu, mozkinen eta dibidenduen banaketa zigortuz. Ikusten dozuenez, aintzat hartzeko, zerga-erreformarako proposamen bat ekarri dogu, birbanatze-efektu indartsua daukana eta komuna indartzen daben jarduerak sustatzen dituana, gizarte kohesionatu, zuzen, bardintasunezko eta jasangarri baterantz aurrera egiteko. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted. Tiene la palabra la representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia, la señora Fernández Angulo.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Beno, legealdi honetan hainbat alditan eztabaidatu dogu gai fiskala, nire taldeak eskatuta egin dogu, Euskal Herria Bilduk eskatuta oraintsuago, eta orain Elkarrekin Bizkaia eskatuta. Eta, beraz, nire hitzaldia laburra izango da, nire taldearen jarrera ez dalako funtsean aldatu, nahizta, logikoa danez, gaur egun lurraldean daukagun errealdadera egokitu behar diran,



Osoko Bilkura honetan eta beste batzuetan danok hainbat bider aitatu dogun osasun-krisiaren ondorioz. Begira, nik ez dakit momentu onik dagoan erreforma fiskala apliketako, nik neuk ezetz uste dot. Baina hau behintzat, unerik txarrena da erreforma fiskala egiteko, kontuan hartzeko izapidean egon arren, etorkizunean datu gehiago emon ahal izango zeuskigu, baina benetan uste dot une honetan, hirugarren olatuaren punturik gorenean gagozan honetan, gure lurraldean personeren mobimentuak eta mugikortasun-gaitasuna mugatuta dagozanean, osasun-sistema gainezka egiteko puntuan gagozala.

Nire ustez, mundu honetan ez gara gai hirugarren olatu honetatik zelan urtengo garan eta egoerak hurrengo asteetan eta hileetan zelan eboluzionauko dauen zehatz-mehatz baloretako. Ondo dakizuenez, bat gatoz, nire taldeak tribuna honetan egiten dituan esku-hartzeen zati handi bat zerga-tresnaren garrantzia izan dalako. Nik bai uste dot tresna bat dala aukerak irabazteko, Bizkaiarentzat, enpresentzat, PYMEentzat, gure autonomoentzat, oinarritzko tresna da eregiko dogun eredurako edo Covid osteko Bizkaiak datozen urteetan izango dauen bilakaerarako, eta, esan dodan moduan, lurralde lehiakorragoa izateko, erakargarriagoa inbersinoari eusteko eta erakarteko inbersinoa, enpresak, eta, kalidadeko lana sortzeko indarra eukiteko, eta baita be gure lurraldeko familien egoera sendotzeko.

Danok dakigu hori; izan be, ganbera honetan esan bada Foru Gobernuak aurten zerga-erreforma bat planteauko dauela, nik, egia esan, proposamen hau aurkeztea interpretetan dot jarrera bat finkatzen ahalegintzeko, Elkarrekin Bizkaia taldearen asmoak alde aurretik zeintzuk diran jakiteko, eta nik uste dot, tira, egongo dala ikusteko denporea, besteok be legegintzaldi honetan euki dogun jarrera zelan eboluzionau dogun.

Nik, benetan, uste dot zuek egiten dozuen proposamen honek ez dituela kontuan hartzen gertakari garrantzitsu bi. Alde batetik, aitatu dodana, orain gagozan unea. Baina, gero, beste alde batetik, iruditzen jat zuek uste dozuela ez dozuela lehiakatzen beste errealidade batzukaz, beste lurralde batzukaz, ez dakit jabetzen zarien Europako ingurunearen parte garala, nik ez dakit uste dozuen kasualidadea dala gure bazkide europarrek, batez be garapen-maila handiena daukienez, ez dabela ezelako zerga-mobimenturik egin zentzu horretan, eta baten bat egin badabe, kontrakoa izan da. Gehiago bilduko dabe zerbitzu publiko hobeak eukiteko, nik uste dot hori epe laburrean beharbada beteko dala. Eta diru-bilketa handiagoa dago, baina guztiz ziur nago neurri horreekaz Bizkaian diru-bilketa txikiagoa izango litzatekeela, denporea igarota, eta, jakina, zuek planteatzen dozuen zerga-erreforma honetatik Bizkaia aterako litzatekeela askoz be pobregoa. Gure planteamentuaren kontrako norabidean doa, horrek ez dau inor harrituko, zuek be badakizue, nik zurea errespetetan dot, baina azaldu beharra be sentitzen dot, ez dogulako proposamen hau aintzat hartzea babestuko.

Kezkatuta nago baita be iruditzen jatalako zuek holako erreformak oposizinoan zagozienean bakarrik proposatzen dituzuela, ze gobernuan zagozienean egiten dozue... Ez dakit justu kontrakoa, baina, zalantza barik, zerga arloan daukazuen jarrera asko zehazten dozue. Gogoan daukadana da oraintsu, estatuko aurrekontu orokorrak onartzean, irailean, gizarte-eskubideen estatu-idazkaria zure alderdi politikoko kidea bera, Álvarez jauna, kontuak negoziatan ebilela ogasuneko ministroagaz, María Jesús Montero andregaz, eta ziurtau eban, eta hitzez hitz aitatu dut, pandemiako testuinguruan, eta uste dot orain holako testuinguruan gagozala, koalizinoko hitzarmena mailakatu egin daitekela zerga kontuan sinatzeko, eta berbaz berba dinot: “ez dago preminarik zerga-erreforma tratetako”.

Gainera bat nator zurea oso sakona dala, hau da, ez dela Bizkaiko egungo fiskalitatearen aldaketa bat, benetako iraultza bat da planteatzen dozuena, nire ustez Bizkaia eta bizkaitarrak epe ertain eta luzean pobretzeko iraultza bat. Eta, beraz, talde honek ezin dau horregaz bat egin, uste dot uda baino lehen posible dala, edo data horren inguruan barrero be eztabaida fiskal bat izango dogula hemen, gure proposamenak planteetako unea izango da, orain aintzat hartzeko izapidean eta errespetauta, ezin dalako bestela izan zuen jarrera eta

proposamena, guk uste dogu unerik txarrena dala, beti be une onik badago, nik zalantza daukata eta, era horretako zerga-erreformari ekiteko. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Fernández Angulo. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Señora presidenta, señoras y señores, buenos días de nuevo. Proposatu jakun eztabaidan zuzeneko zerga nagusien, PFEZaren, soziedadeen gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren zergaren erreforma fiskala sustatzeko eskatu jaku. Gure ustez, proposamena ez da egokia, errazoi bigaitik. Ondorio ezezagunak eragin leikez, eta egoera ekonomikoa ezegonkorra da; erreformau beharreko zergak lurralde historikoetan araugintza-ekonomikoa dira, eta eurokaz eusten jako gure zerga-ahalmenaren zatirik handienari. Egia esan, eztabaida fiskal legitimoa da, jakina, baina, barriro dinot, ez da egokia sozialistok aurreko eztabaidetan defendatu izan dogun moduan, adibidez, hemen aztertu zanean Euskal Herria Bilduk aurkeztutako balizko Covid tasa, denporan eta forman desegokia,.

Lehenengo eta behin, eta oro har, gaur egun hondino daukagun ezegonkortasun ekonomiko handia dala-ta, eta segurutik hile batzutan eukiko doguna, ez dago modurik proposatzen diran neurrien eragin ekonomikoa neurtzeko eta kalkuletako, eta halan adierazten da horri buruz egiten diran txosten guztietan. Ezin dira neurrien eraginak neurtu modu fidagarrian; gainera, ez da harmonizaziorik planteatzen zergak koordinatzeko organoan, ezin da fidagarritasunez kuantifikatu, eta, beraz, gitxieneko zorrotasunez balioetsi proposamen fiskalok ekarri lekiezan ondorioak. Eta, bigarren, ez da zerga-bilketaren eraginaren ikuspegitik, ezta planteatzen diran aldaketek ekarriko leukien finantza-nahikotasunaren ikuspegitik be. Ezta zergadunaren ahalmen ekonomikoan izango leukien eraginaren ikuspuntutik be. Hau da, konsumorako eta inbersinorako gaitasunean daukan eragina, ze presino fiskal handiagoak ez dau justizia fiskal handiagoa esan nahi.

Berehalako eragina daukan zerga bakarra BEZaren bidezko bilketa da. Gainerakoek denbora dekalajea daukie, gaur egiten dan edozein erreforma fiskal, urtarrilaren hasiera dalako, datorren urtetik aurrera ikusiko geunke ondorioren bat, ez da berehalakoa. Denbora behar da ondorioak ikusteko. Beraz, ezin da emaitzei buruzko gitxieneko azterketa fidagarri bat egin ekitateari eta justizia birbanatzaileari buruz. Ondo dakizuenez, orain politikaren lehentasuna preminei erantzutea da, arlo guztietan amaibakoak dira eta. Politika publikoak osatzea, autonomia-erkidegotik eta tokikotik, Espainiako Gobernutik hedatzen dabilzan babes soziala. Erantzun orokorreko esparru horretan, hemen euskal erakundeetan, bai Euzko Alderdi Jeltzalea bai Alderdi Sozialista, euskal eskume fiskala erabilten gabilz aldi baterako erantzunak berehala emoteko, pertsona eta enpresa ahulenen ahalmen ekonomikoa ahalbidetzeko. Beraz, 2021a erresistentzia ekonomiko eta fiskaleko urtea izango da, ekonomia suspertu ahal izateko. Neurriok diru-kutxa publikoarentzat ahalegin handia eragingo dabe, une honetan fase hori gaintzeko onartu behar dogun eta hartu geinkena. Ez gatoz bat beti azpian dagoenagaz, arlo publikotik egiten dan finantza-ahalegin instituzional apartari emoten deusazuen garrantzi eskasagaz eta ahulagaz.

Euskal instituzinoetatik be, eta hori ezin dugu partekatu, Eusko Jaurlaritzak kopuruak zehaztu ditu, 1.617 milioi euroko defizita aurreikusten dau 21. urterako. Zor hori barne produktu gordinaren % 16,9 da, eta zor hori nahikotzat jotzen da Euskadik une honetan behar dauen errealidadeari aurre egiteko gastu- eta inbersino-politika bat egiteko. Bestalde, holako garrantziko zerga-erreforma lurralde bakar baten sustatzeak desharmonizazinoa eragingo leuke lurralde osoan, Euskadi osoan; beraz, ezingo geunkez marjin eta zerga-tasa batzuk euki lurralde baten eta beste batzuk beste baten. Beraz, amaitu egingo dot, uste dogu garrantzitsuena

dala aurrean daukagu garaia aurre egitea, 20rako izateko zan baina pandemiagaitik ezin izan zan zerga-erreforma berrikusi arte itxarotea, eta une horretatik aurrera ikusi zerk funtzionau dauen, zerk ez dauen funtzionetan, eta zelan hobetu eta implementau daitekeen. Baina danok batera egitea Euskal Herrian, ez bakotzak bere aldetik, ez dakit zelako amarruak tarteko dirala, azkenean, diru-bilketan eraginkortasuna baino gehiago zarata sortzen dabenak. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias señor Otermin Eraso. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta, buenos días de nuevo. Elkarrekin Bizkaia presenta Propuestas de Norma Foral de modificación de cuatro impuestos: el Impuesto sobre las Personas Físicas, el Impuesto sobre Sociedades, el Impuesto de Patrimonio y el Impuesto de no Residentes.

No es la primera vez que hablamos de reforma fiscal en esta cámara. EH Bildu ha planteado en más de una ocasión la necesidad de una reforma fiscal en profundidad. Y recientemente trajimos aquí la Proposición de Norma Foral para la creación de la Tasa Covid como medida provisional y urgente para hacer frente a la pérdida de ingresos producida por la Covid-19. Entre esa propuesta y las Propuestas de Norma Foral que estamos debatiendo hoy hay elementos comunes. Es cierto que planteamos la Tasa Covid de forma provisional, pero dejamos claro que no descartábamos la necesidad de una reforma fiscal en profundidad. Se trataba de tomar una medida para aumentar los ingresos lo antes posible, esa era la Tasa Covid. Pero no salió adelante. Y hoy tenemos sobre la mesa cuatro propuestas de modificación de impuestos. Coincidimos con algunas propuestas concretas, con otras no, y nos faltan algunas cosas, pero hoy no es el momento de debatir sobre ello, hoy tenemos que decidir si tenemos en cuenta o no esas Propuestas de Norma Foral. Y tengo que decir que EH Bildu tiene muy claro que les vamos a dar el sí, es decir, que les vamos a dar cauce para debatir estas Normas Forales, porque creemos que es necesario ese debate en torno al sistema fiscal.

EH Bilduk behin baino gehiagotan proposatu dau erreforma fiskal sakon bat egitea. Ez hori bakarrik, Covid tasa sortzeko Foru Arau Proposamen bat defendatu genduan hemen orain dala hile batzuk. Kasu horretan, behin-behineko neurria zan, diru-sarreren beherakada lehenbailehen geldiarazoteko. Baina orduan esan genduan moduan, horrek ez eban esan nahi sistema fiskalaren erreforma globalaren eztabaidari uko egin behar jakonik. Eztabaida horren beharra defendatzen jarraitzen dogu, eta horregaitik baiezko botoa emongo dogu, Foru Arauaren lau proposamen horreek aintzat hartzearen alde.

Y voy a dar algunos argumentos para subrayar la necesidad de ese debate. Las que he escuchado, ya sabemos, que no es el momento, se quiere decir que no es el momento para algunos, pero para otros está claro que es el momento, porque algunos están sacando beneficios también en esta grave situación. Y ya es hora, porque aquí estamos hablando de dar paso, porque luego el proceso de aprobación es largo. Y también se ha dicho, el argumento que se utilizó en contra de la tasa Covid, ez dago harmonizaziorik, jakina, Otermin jauna; izan be, zuen proposamenagaz gaia Zerga Koordinazinarako Organora eroan behar dala, ba zuek bakarrik bialdu zeinkie, eta holan dana blokeatzen deuskuzue, ze zuk ondo be ondo dakizu Elkarrekin Bizkaiak proposamen horreek eurak aurkeztu dituala Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, Covid Tasaren proposamena EH Bilduk Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aurkeztu eban moduan. Orduan, gure helburua harmonizatzea da, arazoa da zuek, hiru erakunde horretan gobernatzen dozenok, EAJk eta Alderdi Sozialistak ez deusazuela gai horri heldu gura, hori da arazoa, ez harmonizaziorik ez egotea, harmonizazinarako borondatea, zalantza barik, EH Bilduk badauka, eta Elkarrekin Bizkaiak be bai, nire ustez.

Entonces, intentaré plantear otros argumentos sobre por qué se necesitan, o por qué debemos abordar esa reforma.

Al final, el señor Otermin también ha dicho, que tenemos que esperar a la evaluación de las reformas realizadas, de acuerdo, bueno, por un lado, esa evaluación solo es sobre el impuesto de la renta de las personas físicas y sobre el impuesto de sociedades. Pero esta evaluación no corresponde al impuesto de patrimonio ni al impuesto de no residentes. Y de la reforma del impuesto de patrimonio no se quiere hablar, pero yo creo que un impuesto que no es progresivo, si lo tenemos aquí, es el impuesto de patrimonio, precisamente porque el impuesto está oculto, y se produce en función de eso. En Bizkaia hay 130 personas con un patrimonio superior a 12,8 millones de euros, que acumulan 3.635,5 millones de euros, y tendrían que haber pagado casi 60 millones en el impuesto de patrimonio, pero, como hay escudo fiscal, se les perdonan 37,5 millones, es decir, más de la mitad se les perdona a estos tan ricos. Más de 12,8 millones de euros.

Y hay que tener en cuenta que se les perdonan esos millones, por tener parado el patrimonio de esos millones, es decir, porque pagan poco IRPF. Esa es justo la medida contraria para impulsar y fomentar la economía.

Por otro lado, debemos tener en cuenta que unos pocos también tendrán beneficios en esta crisis, y algunos grandes beneficios. Eso ocurrió en la crisis anterior, y lo he dicho más de una vez.

En 2011 Espainian, 12,8 milioitik gorako ondarea euker personak 101 ziran eta 2.414 milioi metatzen ebezan. 2018an 130 ziran, hau da, gehiago dira eta 1.211 milioi gehiago batzen dabez. Persona horreentzat ez da krisirik egon. Eta, segurutzin, honetan be antzeko zeozer gertatuko da.

Hay más problemas en el Impuesto de Patrimonio; ¿qué se grava y qué se deja fuera? Para EH Bildu, hay que modificar este impuesto para gravar toda la riqueza y que los ricos paguen tanto como les corresponde.

Por cierto, diré, el Impuesto de Patrimonio no está armonizado. Por lo tanto, otro argumento para la reforma.

¿Y por qué no reformar la Renta de las Personas Físicas y el Impuesto sobre Sociedades? Hay que hacer una evaluación, sí. Pero, lo del IRPF es de 2014, se pueden analizar 5, entonces, si hasta ahora no se ha hecho, todavía no sabemos por qué no se ha hecho.

En septiembre solicitamos el informe de evaluación, pero nos remitieron las bases metodológicas y nos decían que la metodología recogida en los informes anexos sigue sin aplicarse, ya que antes de su aplicación se unificará y acordará con el resto de territorios históricos, en el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi. La respuesta era de finales de septiembre, no sé si en estos cuatro meses el Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi ha acordado algo, pero ya es hora. Como he dicho antes, la reforma del IRPF es de 2014, el Impuesto de Sociedades es cierto que es de 2018, pero tenemos algunos datos, y la próxima vez explicaré por qué también tenemos que reformar los impuestos de sociedades y otros impuestos. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Buenos días a todos. Elkarrekin Bizkaia taldeak 4 foru-arau proposamen egin ditu, aintzat hartzeko. Ez-egoiliarren errenta-zergak, soziedadeen zergak, ondarearen zergak eta persona fisikoen errenta-zergak aldatzeko helburuagaz. Erreforma horreen justifikazioa, funtsean, puntu batzutan oinarritzen da: Soziedadeen gaineko zergaren bilketaren beherakada; errenta-zergaren bilketak behera egingo dauela aurten; errentarik baxuenak daukiezan eta diru-sarreraren galeren kalteak hartu dabezan personei laguntzeko baliabideak ziurtatzea. Azken baten, eragin, egitate eta balio-juizio multzo bat aurkeztu jaku, leku komun batzuk nahastuta, egia esan, ez oso analisi sendoa.

Kontuan hartu behar da zerga-politikaren aldaketak azkenengo mendeko osasun-krisi larrienaren hirugarren boladaren erdian eztabaidatzen gagozala. Bizkaia 7.122 milioi euroz itxi dau 2020ko bilketa, lurraldeakaz eta Estatuagaz doikuntzak egin eta ostean. Horrek esan gura dau % 10eko beherakada egon zala 2019ko zifren aldean. Kontuan euki behar da beherakada horrek 3 elementu garrantzitsu batzen dituala: jarduera ekonomikoa gelditzea, autonomoei eta Foru Aldundiaren PYMEei laguntzeko neurriak eta gure Aldundiak oraindino be aplikatzen dituan ordainketa-atzerapenak.

2020ko bilketaren gaineko ABC azterketa egiten badogu zerga guztiakaz, ikusten da bilketaren % 94 baino gehiago 4 zerga nagusitatik lortzen dala: PFEZa (% 40), BEZa (% 36), estatuagazko doikuntzak batuta; zerga bereziek (% 9,4) estatuagazko doikuntzak be barruan dirala, eta soziedadeen gaineko zerga (% 8,3). Gogoratu behar dogu Foru Aldundiak ez daukala BEZerako eta zerga berezietarako legegintza-ahalmenik, baina zerga horreek diru-bilketaren ia % 47,6 dira.

2020ko diru-bilketan izandako beherakaden erradiografia egiten badogu orain, honako hau ikusiko dogu: jaitsiera globala 833 milioi eurokoa da. BEZak eta zerga bereziek 410 milioiko beherakada egin dabe, hau da, jaitsiera guztiaren % 47. Soziedadeen gaineko zergak jaitsiera osoaren % 19 egin dau, ia 167 milioi euro; halanda be, PFEZak, 2020an oraindino, 95 milioi euroko beherakada izan dau, bilketa bolumen handieneko zerga izan arren.

Estatuagaz egindako doikuntzek 165 milioi euro egin dabe behera, berezien eta BEZaren artean, jaitsieraren % 23. Beherakaden pisuak erakusten dau jarduera ekonomikoak eragin erabakigarria daukala diru-bilketan, beherakadaren % 60 baino gehiago. Beraz, oso garrantzitsua da egoera fiskalaren diagnostikoa zehaztea eta legeak beroan egitea saihestea, lehenengo datuak, gero informazioa, gero diagnostikoa, eta azkenik, hausnarketa sakona egin eta ostean, legegintza-ekintzak.

Analisi horregaz, garrantzi politiko handiagoa hartzen dau, ahal bada, Batzar Nagusiok 2020ko iraileko politika orokorrari buruzko eztabaidan onartutako lehenengo urtenbide-proposamenak, orain aitatuko dodanak: zerga-politika Bizkaiko lurralde historikoak politika publikoak garatzeko dituen funtsezko tresnetako bat dala, bere zerga-politika erabagiteko gaitasuna zuzeneko zergapetzearen esparruan dagoala, eta hori guztia bere eskubide historikoetan kokatzen dala. Bereiztasun horrek, gure autogobernuaren susterra danak, egokitzapen bat ahalbidetzen dau, maniobra-tarte oso garrantzitsu bat. Horregaitik, Euzko Abertzaleak taldeak eta Euskal Sozialistak taldeak 1 zenbakiko konponbiderako proposamenean 4 puntu aurkeztu ebezan irailean, Foru Aldundiari honako hau eskatzeko: 2014an eta 18an onartutako erreformen emaitzak berrikusteko prozesua garatzea eta gainerako erakunde eskudunekaz batera betetea, egungo egoera barruan dala. Garapen jasangarriaren helburuakaz lerrotutako eta bideratutako zerga-eredua ezartzea. Garapen ekonomiko jasangarria hobetzeko proposamen bat egitea, udal-finantziarioaren azterketa egitea Eudelegaz koordinatuta. Halanda be, Osoko Bilkura honetan ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren, soziedadeen gaineko zergaren, ondarearen gaineko zergaren eta PFEZaren gaineko aldaketa batzuk aurkeztu jakuz.

Aldaketa guztiok honetara laburtu geinkez: tasa aplikagarriak gehitzea eta gitxieneko tributazioa gehitzea, atxikipenak gehitzea, salbuespena ezabatzea, zergapetze

bikoitzagaitik, kasu jakin batzuetarako. Beste salbuespen batzuk kentzea, aurrezkien tributazioan, pentsio-planetan eta PFEZn etxebizitzagaitiko kenkarietan aldaketak egitea. Azken baten, 2021eko diru-bilketa handitzea planteatzen da, tasak handituz, kuota-murrizketak kenduz eta kenkariak murriztuz. Zuhur jokatu behar dogu, zerga-politikako erabagiak eraginkorrak izan behar dira. Foru lurraldeek ez daukie bigarren aukerarik, ez dago proba-erratia egiteko lekurik. Krisi honen ostean, foru-politika fiskalak lehenengoan asmau behar dau, gogoratu behar da zergei aplikau beharreko tasak igoteak ez dauela beti zerga-bilketa hobetzen. Personen eta enpresen jarduera ekonomikoak eragin erabakigarria dauka diru-bilketan, eta une honetan oraindino urrunetik be ezin ditugu neurtu krisi ekonomikoaren ondorio guztiak. Horregaitik guztiagaitik, ezezko botoa emongo deusagu 4 arau-proposamenak aintzat hartzeari.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Arana Requena. Pasamos al turno de respuestas, para lo cual tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martin.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTIN** andreak: Gracias, señora presidenta. Gaur aldaketak babestuko ez dabezanez, argudio bereberri eusten deusie, gitxi gorabehera, unearen egokitasuna zalantzan jartzen dae, eurek esaten dabenez, errekuperazioan jarri behar da arreta, eta hori orain ez da toketan, ez dira ondorioak ezagutzen, gitxi gorabehera horixe da. Eredu fiskal hori, orain daukaguna, neutroa da, ondorio neutroak ditu bizi dogun egoeran, eta aztertu dabe zer ondorio izango dituan? gure proposamenak dituenak baino hobeak edo okerragoak diran? Edo, ez dozue analisi hori egin, badaezpada? Nik uste dot hortik doala, egia esan, hobe dala geldirik egotea; eta benetan, geldirik egoteak ez gaitu honetatik aterako.

Zuek dinozue ez dala une egokia, egia da, eta itxidazue, baina nahiko inkoherentea da zuentzat egokia ez izatea, otsailean zerga-erreformaren meloia zabaltzea, eta handik hortik hementik, gaur izapide hori onartu ezker, mahai gainean egongo litzateke ia ia Rementeria jaunak zerga-erreforma aurkeztuko ebala esan eban datarako, pareak. Mazzucato andregaz aurkeztu gura dozuen hori, harmonizauta egongo da, ze ez dot entzun ez Araban ez Gipuzkoan aurkeztuko dozuenik, edo desarmonizazioen paketeen gehituko dozue, ondarearen gaineko zergagaz batera? Nik uste dot, ez dakit, zuek leporatzen deuskuzue gauza batzuk egin behar ditugula, baina gero zeuobere ez dituzue egiten. Esaten dozue: zuen proposamenak aurkezteko behar diran datu guztiak euki behar dira, analisi guztiak eginda, eta zuena aurkezteko, analisiak eginda dagoz? Edo horrek Elkarrekin Podemosek aurkeztzen dauen proposamenerako bakarrik balio dau? Ez dakit, ez zaituet ulertzen. Deigarria egiten jata Arana jaunak esatea emoten ditugun argudioak...

Lehenengo, ez jakozala serioak egiten, ez dirala pisuko argudioak, ni harrizten nau pisuzko argudio bat ez iruditzea gizarte desorekatua daukagula, abiadura bitan dabilena, gero eta urrunago dagozan errealidade bigaz, egoerari tiraka jarraitu ezker soka eten egingo da-ta, eta helduko da. Krisiaren aurretik, Intermonek egindako txostenaren arabera, Euskadi zan Espainiako bigarren autonomia-erkidegoa desbardintasunen indizerik handiena eukana. Txosten horretan bertan, Intermonek adierazten dau, pobreziak Euskadin daukan eraginari jagokonez, osasun-krisiaren ostean % 8 baino gehiago haziko dala, eta 200.000 persona baino gehiago egongo dirala pobrezia-egoeran. Eta, begira, gizartearen sektore zabal bat gero eta itoago dagoan bitartean, populazioaren sektore txiki bat daukagu, gero eta aberastasun handiagoa daukana. Eta zuek gaur erabagi dozue geldi egotea, horreek ez ditugu ukutuko, persona batzuk ez dira ukutu behar. Era berean, ez da ukutu behar Bizkaiko herritarren poltsikoan dirua jartzea, hori da ta proposatzen dogun gaitako bat, eurei ez kentzea, baina beharrak dituanari, txarto pasetan dagoanari, aurtengo neguan etxea berotzea eta hile amaierara heltzea kostetan jakonari, horreen poltsikoan dirua jartzea bez. Hori da gaur bozkatuko dozuen.

Fitxarik ez mobidutea erabagi dozue, zain geratuko zarie, ea atertuten dan, eta aurrera egin geinke, zuek beti planteau dozuenagaz, asko batzuentzat, eta apurrak gainerakoentzat. Gure ustez, oraintxe da unea, testuinguru honetan, oraintxe behar dogu berreregite-plan hori, personak, zaintzen ekonomia, eraldaketak gure ekoizpen-ereduan lehenetsiko dituen, desberdintasunen kontrako borroka, klima aldaketaren kontrako borroka lehenetsiko dituen. Oraintxe da, oraintxe, eta erabagiagaz egin behar da, fiskalidatearen moduko tresnan babestuta, bide emoten deuskulako. Zuek jaustea aitatu dozea, datuak emon dozuez, konturatu barik diru-bilketaren jaitzieran, jarduera ekonomikoa zelan kaltetu dan aitaturerako, ahaztu egiten dozula pertsonen poltsikoei be eragiten deusiela. Nik uste dot garrantzitsua dala gaur erantzukizun-ariketa bat egitea, herritar guztientzat gobernatzeko garaia da, ez gitxi batzuentzat bakarrik. Eta, nik ezer gitxi gehiago esan neike zerga-erreformarako proposamen hau aintzat hartzearen alde bozkatzera animatu baino, lurraldearentzat mesedegarri izango dalako, zalantza barik. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante del Grupo Mixto-Partido Popular Bizkaia no participará. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene usted la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Gauza jakin batzuk esateko hona ateratea ez dot uste oso zuhurra danik; ze gure aldetik inkoherentea dala esatea, 22. urterako zerga-erreforma atzeratzea Espainiako Gobernuak eta Unidos Podemosek erabagi badabe, egoera ekonomikoa hobetu arte, non dago inkoherentzia? Non? Gudan? 20. urterako aurreikusita geunkan, eta 21. urterako atzeratu dogu, ezohiko egoera ekonomikoa dala-ta. Espainiako Gobernuak 22an jartzea erabagiten dauenean. Presino fiskal handiagoak ez dau esan gura diru-bilketa handiagoa, ezta justizia sozial handiagoa be. Konparatzen badogu, adibidez, Danimarkako egoera, presino fiskala, Espainiakoa Danimarkakoaren mailara igongo bagendu, eurek urtean batez beste 51.200 euroko errenta daukienean eta gu 24.000 euro inguruan gagozala, non dago justizia soziala? Argiago daukazue zertan gastau, zelan bildu baino. Eta hemen besteen bolboreagaz jokatzeko dogunez, egin daigun zerga-erreforma edozelan. Egin daigun zorra, behar dan bestekoa, ia danon artean honetatik urteteko dogun zor-pilo itzelagaz. Zelan ordainduko dogu gero? Zertaz gabilz? Badakigu zertaz gabilzanbenetan? Badakigu?

Bigarren, esaten deustazue, zuek 3 aldundietan edo 3 batzarretan gobernatzen dozue, eta ez da inoiz aterako harmonizazio-prozesurik. Eusko Legebiltzarrean planteau, ala Eusko Legebiltzarra zerga-harmonizaziotik kanpo dagoan instantzia bat da? Euskal Udal-Legearen arabera, zein da Eusko Legebiltzarraren eginkizuna gai honetan? Oso garrantzitsua. Ez da nahikoa esatea: zuek egiten ez badozue, ez da inoiz posible izango. Egizue zuok, planteau Eusko Legebiltzarrean, ondino ez dozue planteau eta. Zeren zain gagoz? Eta, gero, egoera honetatik ateratzen dogun okerrena da badirudiela batzuk interes ekonomiko handiak eta gitxi batzuen finantza-egoera handiak babesten gagozala, gehiengoaren kaltetan. Bidegabeak bagina bezala. Bidegabekeria frogatu, zertan? Sistemarik onena daukagu, ez da perfektua, baina baztertuta geratzeko arriskuan dagozan personak babesteko sistemarik onena da Estatu osoan. Zergaitik esaten ditugu halako gauzak hainbesteko arinkeriaz? Lelo bat aterareko, ba bihar esan zeinkien leloa da hemen Madrilen esaten dozuena kontrako dinozuela. Kontrakoa, Madrilen 22ra arte itxaron daiteke egoera ekonomikoaren egonkortasunagaitik, egin daitekeen guztia berreskuratzegaitik, eta hemen ezetz esaten jaku, ez, egin daigun ziztu arin-arin, goazen gure kontura, hori dalako herritarrek behar dabena. Nork esan deustu zerga guztietan tasak aldatzeak *per se* diru-bilketa handiagoa ekarriko dauela? Eta berriro esango dot lehen esan dodan ideia bat: presino fiskal handiagoak ez dau nahitaz justizia sozial handiagoa esan gura, eta hemen oso kontu delikatuakaz gabilz jolasten, eztabaida azkarrekoak izan ezin diran gauzakaz, baizik eta oso zehatz pentsau behar da, uneari itxaronda eta egoera argiagoko ikusten joango garala itxaronda, batez be garatu gura dogun politikaren onerako, bestela emoten

dau hemen danak balio dauela eta dana esan daitekeela, beste batek ordaintzen dauenez, aurrera. Besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Otermin Eraso. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Beno, Otermin jauna, hemen bai esan lei bakoetak gura dauena esan leikela, baita zuk be. Ze zuk ondo be ondo dakizu Eusko Legebiltzarrean, Euskal Herria Bilduk aurkeztu ebala Covid tasaren proposamena. Eusko Legebiltzarrak zeresana dauka, baina gobernatzen dabenek, bai Eusko Jaurlaritzan, bai Aldundietan, hau da, EAJk eta Alderdi Sozialistak, uko egiten deusazue Eusko Legebiltzarrean zerga konturik aitzazeari. Edozein kasutan, berba egin zan, eta argudio bera erabili zan. Ebaluazinoa egin arte itxaron behar dala, uste dut argumentuak badagozala, baina ez daukala oinarri handirik.

Y voy a intentar explicar otros dos datos, por qué creemos por parte de EH Bildu que hay que hacer una reforma fiscal, porque el sistema fiscal que tenemos a día de hoy es injusto. Por un lado, he analizado cuál ha sido el desarrollo de 2017 a 2020, tanto en lo que se refiere a la tributación de las rentas de trabajo como al impuesto de sociedades; y ¿qué ocurre? Pues bien, entre todos los impuestos que recibimos, aumenta el peso de las rentas del trabajo, en 2017 fue el 33,80% y en 2020 ha sido el 40%. Y, al mismo tiempo, ha bajado el impuesto de sociedades, que en 2017 era el 8%, subió en 2018 el 12%, pero luego en 2019 el 9,62% y en 2020 el 8,30%. Es decir, los trabajadores pagamos cada vez más en el impuesto sobre la renta de las personas físicas y las empresas cada vez menos en el impuesto de sociedades.

Es lógico, sabemos que en los últimos dos años bajó el tipo. No sabemos si van a pagar más si subimos el impuesto, parece que no lo sabemos, pero está muy claro que, si bajamos el tipo, pagan menos, no hace falta gran cosa, ya tienen los datos de 2019 y 2020 y así se expresa, calculan el porcentaje y pagan menos proporcionalmente comparados con otros impuestos.

Y otro dato, hemos conocido los ingresos del ejercicio 2020 recientemente, y si miramos los de Bizkaia, es cierto que ha habido un descenso, en total hemos recibido casi 11 puntos menos, pero si miramos, el descenso en la Renta de las Personas Físicas ha sido del 3,2%, y en el Impuesto de Sociedades del 22,2%, 3 veces más.

Por lo tanto, habiendo precariedad, los trabajadores están sufriendo las consecuencias, pero pagan los impuestos, el impuesto sobre las sociedades ha bajado mucho más y es verdad y todas las medidas que se han tomado han sido para que las empresas no paguen impuestos.

Y hay otro elemento que podemos mirar, comparando, y es qué ha pasado con los impuestos indirectos y qué ha pasado con los impuestos directos. ¿Y qué pasa? Tanto en la CAPV como en Bizkaia la caída en los impuestos directos ha sido menor que en los indirectos. Por lo tanto, recibimos más a través de los impuestos indirectos que a través de los impuestos directos. Y eso significa que seguimos profundizando en la regresividad. Otro argumento para modificar el sistema fiscal. Que no es justo, porque no es progresivo, así nos lo indican estos datos.

Y para terminar, siempre se dice, en Europa no se puede hacer así. European gauzak beste alde batetik doaz, ez dabea holakorik planteatzen, orain ez da momentua. Lau datu, 2020ko iraila, kapitalaren ondarearen gaineko zerga igotzea eta susperraldia ordaintzeko zerga



berdeak sortzea eskatu dau ELGAK. 2020ko urrian, FMiK aberatsenei zergak igotea eskatu eban, gastu publikoaren igoera finantziazteko. Ez dot uste FMiAgaz zerikusirik daukagunik hemen, ez Elkarrekin Bizkaiak, ez EH Bilduk, ezta ELGAgaz be. 2020ko abuztuaren 30ean, Britainia Handiak errenta altuei, enpresei eta kapital irabaziei zergak igotea proposatu eban, eta 30.000 milioi euro biltzea. Eta 2020ko abuztuan, Danimarkak proposatu eban aberastasun handien eta bankuen zerga sortzea. Beraz, zergak igotea ez da Elkarrekin Bizkaiari eta EH Bilduri bakarrik bururatu jakun gauza bat. Muchas gracias.

En Europa las cosas van por otro lado, no se plantean este tipo de cuestiones, ahora no es el momento. Cuatro datos, septiembre de 2020, la OCDE pide subir el impuesto del patrimonio al capital y crear impuestos verdes para pagar la recuperación. Octubre del 2020 el FMI pide subir impuestos a los más ricos para financiar el aumento del gasto público. No creo que tengamos nada que ver con el FMI aquí, ni Elkarrekin Bizkaia, ni eh Bildu, ni con la OCDE tampoco. 30 de agosto del 2020, Gran Bretaña plantea una subida de impuestos a rentas altas, empresas y ganancias de capital, plantea recaudar 30.000 millones de euros. Y agosto del 2020, Dinamarca plantea crear el impuesto a las grandes fortunas y a los bancos. Luego, subir impuestos no es una cosa que se nos haya ocurrido solo a Elkarrekin Bizkaia y eh Bildu, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Nacionalistas Vascos, señor Arana Requena, tiene usted la palabra.

El Sr. **ARANA REQUENA** jaunak: Hau demagogia! Desbardintasun sozialak dirala-ta, gure Aldundia aurrekontuak onartzeko plan baten dago une honetan, gizarte-ekintzako plan indartsu bategaz, eta urteak daroaguz ildo horretan lanean. Etorkizunerako plana dala-ta, bi alde eukazan: lehenengo, ikuspegi fiskala ODS-akaz lerrotatzea, eta, bigarren fasea, erreforma fiskala egitea. Hori da gure plana. Aldaketak, zergak eta planteatutako aldaketak sartu eta aztertuta, eztabaidari laguntzeko zenbait alderdi aitatu gura dodaz. Hemen aitatu dan ondarearen zergak 2019an 77 milioi euro bildu zituan oposizioaren arabera, hau da, bildutakoaren % 1era ia ez da heltzen, hori da guztizkoan daukan pisua. Azpimarratu nahi dot tasa aplikagarrien igoerak ez dauela beti hobetzen diru-bilketa. Adibidez, soziedadeen gaineko zergan, ogasuneko diru-sarrerak enpresen etekinen arabera dira, eta enpresek ez badaukie etekinik, ez dago diru-bilketarik. Zuzeneko zergen aldaketek, esan dan moduan, dekalajea daukie denporan, eta ez dira automatikoak diru-bilketarako. Gogoratu behar da, era berean, PFEZari buruz izan dan eztabaidari jagokonez, Bizkaian 200.000 pertsonak desgrabazioak egiten dabezala ohiko etxebizitzagaitik, edo Bizkaian 150.000 pertsonak egiten dabela ekarpena beren BGAEra, eta ez dabela ekarpenik handiena egiten, ezpada, adibidez, 1.000 €urtean. Ez gabiltz aberatsen ganean, eta, gainera, BGAEetara bideratutako aurrezkiak be Bizkaiko garapen ekonomikoari laguntzen deutso.

Covid osteko aroa ez da heldu oraindino, heltzen danean lurralde ezezaguna izango da. Halanda be, azpimarratu behar dot preminazkoa bezain garrantzitsua dala funtsezkoena. Egoera gorabehera, epe laburraren gaitetik jarri behar dogu gure begirada, 2020ko diru-bilketa 2019koa baino txikiagoa izan da. Halanda be, garrantzitsua da ikuspegi estrategikoari eustea, 14ko eta 18ko erreformetan lortutako emaitzak aztertzea, helburuak egoera barriaren arabera ezartzea, aitaturako ODSSak kontuan hartzea, egungo legeriaren ganean hausnartzea eta egokitzea. Batzar Nagusiotara ekartea, eztabaidatzeko eta onartzeko, ahaldunek hala erabagiten badabe, azken baten, ikuspegi sistematiko eta sendoa, azaroko Osoko Bilkuran adierazi genduan moduan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Arana Requena. Tal y como fijamos en la Junta de Portavoces, el debate ha sido unitario, pero la votación se hará punto por punto. Por lo tanto, en primer lugar, debemos someter a votación si se toma en consideración o no el punto 4. Por lo tanto, ¿votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado es el siguiente: los votos emitidos, un total de 49, han sido a favor 14 y en contra 35, por lo que no se toma en consideración el punto 4.

Votamos la toma en consideración o no del punto 5. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, en total los votos emitidos han sido 49, a favor han sido 14, en contra 35, por lo que no se toma en consideración el punto 5.

Votamos la toma en consideración o no del punto 6. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo tanto, el resultado: total se han emitido 49 votos, los votos a favor de la toma en consideración han sido 14, ha habido 34 votos en contra; por lo tanto, no se toma en consideración el punto 6.

Y, finalmente, ¿votos a favor de la toma en consideración del punto 7? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por tanto, el resultado ha sido: 49 votos emitidos, 14 votos a favor de la toma en consideración, 35 en contra, por lo que no se ha tomado en consideración el punto 7.

Los puntos 8 y 9 del orden del día se debatirán conjuntamente.

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2020/0002512](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 3/2005, de 10 de marzo, por la que se regula el Tributo sobre el Juego en el Territorio Histórico de Bizkaia.

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2020/0002512](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (12A),  
[Corrección de Errores](#) (12ACE)

**Expediente:** ([11/A/07/0001753](#))

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición de Norma Foral ([R.E.11/E/2020/0002513](#))

**Autor:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Asunto:** Reforma de la NORMA FORAL 7/2014, de 11 de junio, del Impuesto sobre actividades del juego.

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2020/0002513](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite](#) (13A)

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2020/0002512SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Bizkaiko Lurralde Historikoan Jokoaren gaineko Zerga arautzen duen martxoaren 10eko 2005/3. FORU ARAUA aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2020/0002512SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (12A),  
[Hutsen zuzenketea](#) (12ACE)

**Espedientea:** ([11/A/07/0001753](#))

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Foru Arau Proposamena ([11/E/2020/0002513SE](#))

**Egilea:** De Madariaga Martin, Eneritz (EB)

**Gaia:** Joko-jardueren gaineko Zerga arautzen duen ekainaren 11ko 7/2014FORU ARAUA aldatzea

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2020/0002513SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea](#) (13A)

**Expediente:** [\(11/A/07/0001754\)](#)

**Espedientea:** [\(11/A/07/0001754\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, es el turno del grupo que ha presentado las iniciativas; por lo tanto, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Sí, gracias, señora presidenta. “Goizeko 7:30etan jagiten naz nekatuta, umore txarrez, atzo barriro be goizaldeko 4ertan oheratu nintzalako azken zentimoraino jokatu eta ostean. Jokoa hasten naz eta une horretan ahaztu egiten jat dana, ordua, igaroten dan denporea, emaztea, bankua, alokairua eta nire inguruan gertatzen dan guztia”. Hori da ludopatia daukan persona baten kontakizun mingarria.

Jokoa eta posturak modu zakarrez eta kontrol barik sartu dira gure bizitzan. Euskadin, 2017an, ia 340 milioi euro gastau genduzan kirol-posturetan, 36,5 milioi apustutan. Horrek, batez beste, 9 € emoten ditu apustu bakotzeko, eta apustu bat segundo bakotzeko. Fenomeno hori, zalantza barik, lotuta dago ludopatia-kasuen gorakadeagaz be. Bizkaiko ludopatei laguntzeko alkarteak (Aluviz) esan deusku 388 personari emon eutsiela arreta 2015etik 2017ra bitartean, eta, gainera, persona horreen profila gero eta gazteagoa dala. Arreta emon eutsien personen % 25 30 urtetik beherakoak dira; hau da, 2013. eta 2015. urteen artean baino % 10 gehiago. Bi errazoi nagusi dagoz kontrol bako hazkunde hori azaltzeko, gaur egun gazteen belaunaldi oso baten etorkizuna mehatxatzen dauena, eta beste belaunaldi galdu bat bihurtu leitekena neurri egokiak hartzen ez badira.

Lehenengo eta behin, apustu-lokalen ugaria; izan be, Euskadi zortzigarren autonomia-erkidegoa da biztanleriaren arabera, baina hirugarrena apustu-etxeen kopuruaren arabera. Eta, gainera, lokalok jakinaren ganean herri-auzoetan eta ikastetxeetatik gertu dagoz. Mapa honetan, beharbada ez da oso ondo ikusten, El Correo-k egin eban, eta ikusten danez, joko-aretoak ikastetxeen inguruan pilatzen dira, eta hori ez da kasualidadea, hori aldeztetik pentsautako estrategia da adingabeak jokoaren mekanikari lotzeko eta beren bizitzetan naturalizat hartzeko. Eta niri eta gure taldeari iguingarria egiten jaku.

Bigarren, biztanle gazteenakaz oso lotuta, online jokoaren hazkunde geldiezina dago, azken finean 24 orduz zabalik dagoan kasinoa. Hamaika datu emon geinkez arazo horri buruz, eta ziur nago ganbera honetan ez dogula talde batek be gaia arrotz. Horregaitik uste dogu erakunde guztietatik jardun behar dogula, bakotzak bere eskumenetatik, bai, baina irmo. Horregaitik, oin dala hile batzuk ganbera honetan bertan eskatu genduan zerbitzu publikoetan, Bizkaibusean adibidez, jokoaren publizidadea galarazteko, tamalez, onartu ez zana.

Gaur jokoari buruzko 2 proposamen fiskal aurkeztuko ditugu. Helburua ez da gehiago biltzea, diru hori ludopatiaren aurkako borrokara bideratzen omen bada be. Helburua da negozio horreen errentagarritasuna murrizten daben eta euron hedapena jasoten daben pizgarri ekonomikoak sartzea. Argi itxi behar da, helburua ez da gehiago biltzea, gitxiago jokatzea baino.

Lehenengo proposamena joko-jardueren gaineko zergari buruzko 7/2014 foru-araua aldatzea da, nahizta zerga hori estaduko lege batek sortu, eta, Kontzertu Ekonomikoaren arabera, estaduak ezarritako arauen arabera arautu behar. Itunak berak aukera emoten dau Estaduak jada ezarritako zergaren tasak % 20 igoteko. Horregaitik proposatzen dogu aukera hori erabiltea eta baimendutako gehienekora igotea.

Bigarren proposamena jokoaren gaineko zergei buruzko 3/2005 foru-araua aldatzea da. Bertan, koherentziaz, arauaren barruan ezartzen dan zerga-tasa edo kuota finko bakotxerako % 20ko igoera bera jasotea proposatzen dogu. Benetan uste dot gutako bakotxaren konpromisoa dala kontrol bako jokoaren errealidade toxiko horren aurka borrokatzea. Besterik ez, zuen balorazioaren zain geratzen gara. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga, el Grupo Mixto no va a participar. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, ahaldun jaun-andreok, oraindik bada inor ezta? Ondo. Zalantza barik, Benito jauna, zalantza barik, ganbera honetako taldeok bat gatoz mendekotasun-jokabide guztiek sortzen dabean ondorioen kezkeagaz. Jokoaren kasuan, mendekotasun hori, patologia bihurtzen danean, desordena oso garrantzitsua da, eta jokatzeko eta apustuak egiteko gogo kontrolaezina dau ezaugarri. Zure hitzaldian ekinean deskribatu dozu desordena hori, ondorio negatiboak dituana arlo personalean, familian eta lanean, inolako zalantzarik gabe. Testuinguru horretan, jokoaren politika publikoen definizinoak eta ebaluazinoak errealiaadearen ezagutza sistematikoa eta etengabe barritua izatea eskatzen dau, kontuan hartuta bai jokoaren eskaintza, bai gizarte-eskaria, bai edozein eskumen-eremu geografikotan horren inguruan agertzen diran joera prospektiboak.

Proposamena egin dauen taldeak, eta zioen azalpenean bertan, adierazi dau joko-jarduerek nahi ez diran ondorioak daukiezala gizartearentzat, eta, beraz, interes orokorraren esku dagoala eurok behar bezala arautzea. Batzar Nagusiok ez daukie horren eskumenik. Izan be, ausazko jokoak merkaturatzeko administrazino-baimenak behar dira, estadukoak zein autonomia-erkidegokoak, ganbera honen eskumen-eremutik kanpo. Orduan, administrazio eskudunek egin beharko dabe erregulazinatorik egokiena. Gaineratu dozue interes orokorraren parte izango litzatekeela negozio horreen errentagarritasuna murriztu eta euron hedapenari eusten lagunduko daben despizgarri ekonomikoak sartzea, eta fiskalitatea da helburu horretarako lagungarri izan daitekeen tresnetako bat. Benito jauna, oso eztabaidagarria da zerga-tasa handitze hutsagaitik disuasino- edo dessustapen-efekturik egon ote daitekeen. Alkohola edo tabakoa grabatzen daben beste zerga batzuk ez bezala, automatikoki azken erabiltzailearengana pasatzen dalako, kasu honetan ez da holan jokutzen, eta, beraz, tasa handitu geinke, eta ez geunke lortuko, beharbada ezebez, jokalaria bakar batek be ez leukelako pizgarririk galduko, ezagutu be egingo ez leuken tipoagaitik.

Jaun-andreok, fiskalitatea ez da erabili behar negozioen errentagarritasuna murrizteko, ezta enpresak sortzeko edo garatzeko proiektuei pizgarriak kentzeko be. Eta oso tentagarria bada be, ez da erabili behar halakoak sustatzeko edo erakarteko, zerga-elusinoa edo -ihesa sustatzeko edo deslokalizatzeko. Zerga-arloko politika proaktiboek fiskalitate ekitatiboa, erraza eta eraginkorra izan behar dabe, eta inoiz baino garrantzitsuagoa izango da datozen hile eta urteetan, eta hori alkartasuna eta justizia ziurtatzeko, horreek susperraldiaren erdigunea bete daien.

Azkenik, zerga bidezko diru-sarrera progresiboak ziurtatu behar dira. Gaur hemen argi baino argiago azaldu dan krisiaren ondoriozko erronka handien erantzuna finantzatzea, eta, alde horretatik, zerga-iruzurraren aurkako borrokak eta zerga-ihesaren aurkako borrokak elementu nagusi izaten jarraitu beharko dabe beti. Besterik ez, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, a usted, señor Álvarez Castrejón. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, tiene usted la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Es verdad que arremeter contra la ludopatía es una cosa que no solo hay que hacer a través de los impuestos; es verdad que el tema es complejo y tenemos que analizar los diferentes elementos, tanto en el ámbito educativo como en cómo se van a poner las normas urbanísticas, las casas de apuestas y un largo etcétera. Pero yo creo que sí, que las propuestas de modificación de las normas forales que nos ha traído Elkarrekin Bizkaia, por un lado, sirven para reflexionar, y tenemos la oportunidad de aumentar el impuesto; pero también para hacer el debate, porque lo que estamos debatiendo ahora no es justo lo que se pone, principalmente que se suba el 20%, sino que se tome en consideración o no, y creemos que por ese camino tendremos oportunidad de debatir.

Hay que tener en cuenta también que en la última época, en los últimos años, ha habido medidas que el anterior gobierno de España ha tomado en muchas ocasiones, para disminuir las tasas del juego, y hemos visto este tipo de cosas, la lotería y estas cosas han venido aquí y se han mantenido así, y hemos debatido.

Estamos de acuerdo en que el objetivo no debe ser recaudar más dinero, sino reducir la rentabilidad. No sabemos si influirá mucho, pero yo creo que tenemos que hacer este tipo de debate, porque para arremeter contra el juego y todas esas empresas yo creo que tenemos que utilizar diferentes vías.

Eta esan beharra daukat ezin dodala, harrituta geratu nazela Alderdi Sozialistak esandakoagaz, ez dakit ondo ulertu dodan, ezin garela sartu joko-enpresakaz, orduan ez dakit daukaguna... Hau da, ezin gara joan joko-enpresen errentagarritasunaren aurka; izan be, badira bultzatu beharreko enpresak, eta badira bultzatu behar ez diranak. Eta, hain zuzen be, tasa handitzen bada, ez dau eragin zuzenik izango apustu-etxe horreetara doan pertsonarengan, baina, zalantza barik, gora egiten bada, apustu-etxeak bultzatzeko hainbesteko gogoia daukienek beharbada ikusiko dabe ez dala hain negozio errentagarria, eta, nire ustez, apustu-etxeen negozioa eta jokoaren bidezko negozioa, beste batzuk bezala, ez dira bultzatu beharreko enpresak, kontrakoa baino. Eta zentzu horretan uste dogu, zergak igon ahal izango bagenduz, igaon egingo geunkezala, ez dalako babestu beharreko zeozer, kontrakoa baino,

Qué influencia tendrá, es verdad que es difícil saber cómo va a ser, pero yo creo que hay que dar paso al debate. Y por eso votaremos a favor, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Bagan Urtiaga, tiene usted la palabra.

El Sr. **BAGAN URTIAGA** jaunak: Señora Presidenta, Diputado General, buen mediodía a todos. Elkarrekin Bizkaia taldeak foru-arau proposamen bi aurkeztu ditu, aintzat hartzeko. Lehenengoan, Bizkaiko lurralde historikoan jokoaren gaineko zerga arautzen dauen 3/2005 foru-araua barriztetea proposatzen da. Araudi autonomoko zerga itundua da, subjektu pasiboaren zergapeko egitateari jagokonean izan ezik, eta Euskadin baimena behar daben joko-jarduera guztiei aplikatzen jake. Ekonomia Itunaren 37. artikuluan adierazten dan moduan.

Eta bigarrenik, jokoaren jardueren gaineko zerga arautzen dauen 7/2014 foru-araua erreformatzea proposatzen da. Arau hori unean-unean indarrean dagozan arau substantibo eta formalek arautzen dabe, estadian indarrean dagoz, eta egia da Bizkaiko lurralde historikoan tasa % 20 handitzeko aukera emoten dabela, Kontzertu Ekonomikoaren 37. artikuluan agertzen dan moduan.

Proposamen bietan esaten edo proposatzen da, hobeto esanda, inposatu beharreko tasak handitzea helburu bategaz, jokoaren jarduerari pizgarriak kentzea eta, holan, saihestea edo jokotik eratorritako arazoei aurre egitea, ludopatia kasurako. Eta planteamentu horren inguruan, hausnarketa txiki batzuk egin nahi dodaz, uste dot talde guztiok jokoaren ondoriozko arazoak saihesteko neurriak hartzearen alde gagozala, eta nik galdetzen dodana da zerga-politika erabiltea osasunetik eratorritako arazoak konpontzeko biderik onena ete dan, beharbada beste esparru batzuetan sortzen eta eragiten daben ekimenak hartu beharko lirateke, eta, gehienez be, zerga-sistema osagarri bat izan leiteke.

Bigarrenik, proposatzen diran tipo-gehikuntza horreek, zalantza daukat eraginkorrak izango diran jokoaren azken produktuetan. Izan be, azken bezeroak ez dau eragin hori zuzenean jasaten, adibidez, alkohola edo tabakoa grabatzen dauen zerga berezi baten moduan, horretan erabiltzaileak berak hartzen dau horren ondorioa, eta hemen enpresaen irabazietan eragiten dau. Jokatzen dauen personari bardin kostauko jako.

Eta, hirugarren, irabazietako eragin hori kontuan hartuta, gertatu leiteke enpresaburu txikiek, autonomoek, jokia eskaintzeko aukerak murriztuta ikustea, eta enpresa handiek merkaturia hartzea. Gainera, eraginten badogu, jokoari eta jokotik eratorritako arazoei erreparetan badeutsegu, operadore batzuk ez lirateko egongo muga horreen eraginpean. Horregaitik guztiagaitik, guk gure kezka adierazten dogu, hemen dagozan talde guztien moduan, jokotik datozen arazoakaz, adibidez, ludopatiagaz, eta uste dogu neurriak hartu behar dirala, baina eremu egokienetatik abiatuta eraginkorrak izan daitezkan, modu globalean, administrazio publikoen eskumenak kontuan hartuta, adibidez, jokoetako diziplinaren arloko eskumenak, kontuan hartuta joko-jarduerak arautzen dituan politika-kontseilu bat dagoala. Eta euron eraginkortasuna kontuan hartuta, eta ez holako jarduketa isolatuakaz. Benito jauna, zuek gobernu baten parte hartzen dozue, zure alderdiko presidenteorde bat dago, eta ministro bat dago, Garzon jauna oker ez banago, ministerio baten titularra dana, arlo horretan eskumena daukana; beraz, hortik be bultzatu zeinkie, beste ikuspegi bategaz, eta eraginkorrako izan. Gure taldeak ez ditu ekimen horreek babestuko. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias a usted, señor Bagan Urtiaga. Pasamos al turno de réplica, para lo cual tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Benito Ziluaga.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburua andrea. Begira, ni asko pozten nau, benetan dinot, jolasa dala-ta bat etortea kezkeagaz, baina are garrantzitsuagoa litzateke gitxienez bat etortea jokoaren eta ludopatiaren egoeraren aurka jarduteko asmoagaz. Kontua da Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenen barruan jarduteko proposamen bategaz gatozanean, ze fiskalaz gainera, modu askotan jardun behar da, jakina, eta ministeriotik Garzon jauna, Bagan jaunak aitatu dauena, orain dala gitxi jardun da publikidadearen aurkako lege-dekretu bategaz. Baina hona Bizkaiko Foru Aldundirako proposamen zehatzak ekarten ditugunean, bere eskumenen artean, hasren dira eragozpenak, tresna fiskala beti esaten da lurralde historikoetako baliotsuena dala. Kontua da erabilten ez bada ez dala tresna, ez eta erabilgarria be.

Fiskalitatea ez da dirua biltzea bakarrik, bultzatzea be bada, pizgarriak kentzea da, zuek ondo dakizue, horregaitik jartzen deutsezue salbuespenak BGAEei eurok

bultzatzeko. Zergaitik ez erabili joko augaritzearen aurka? Begira, nik ondo ulertzen dot zuek, Alderdi Sozialista eta Eusko Alderdi Jeltzalea, hona etortea eta Foru Gobernuaren proposamenak onartzea eta kito, baina begira, benetan dinotsuet, eskatzen deusuet birritan irakurteko zuen argudioak azaldu aurretik. Benetan esaten deustzue jokoari zergak igotea ez dala jarduera ekonomiko hori atzeratzeko neurria? Ez dau enpresen errentagarritasuna murrizten eta, beraz, jokoaren hedapena geratzen? Izan be, ekonomiari buruzko oinarrizko terminoak dira, zergak igoten dozuz, edozein sektoretan mantentzen dozu negozioa, ez dakit, zuek ibilbide luzeko alderdietakoak zarie, benetan egiozue zuen buruari mesedea argudio baliokoagoak ekarteko, eta ez gaziguz lelotzat hartu. Niri, egia esan, bardin deust, baina nik uste dot zeuentzat izango litzatekela mesedegarri.

Zoritxarrez, ikusten dot ez gabilzala eskumenak aprobetxetan; ze joan dan Osoko Bilkuran, ogasuneko diputaduak esan eban beti eskatzen dabela eskumen fiskalik handiena Kontzertu Ekonomikoaren batzorde gorenean. Hemen badogu zerga-eskumen hori erabilteko tarte bat, eta barriro be alperrik galduko da, eta erruak kanpora botata, Eusko Legebiltzarra dala, legea dala. Ez, ez, horretarako eskumenak hemen dagoz, egin daigun.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señor Benito Ziluaga. El Grupo Mixto no participará. El representante del grupo Socialistas Vascos, señor Álvarez Castrejón, tiene usted la palabra.

El Sr. **ÁLVAREZ CASTREJÓN** jaunak: Mahaiburu andrea, mahaikideak, jaun-andreak, ahaldunak, egun on berriro. Etxepare andrea, guztiz baliabide bihurria erabili dozu egin dodan hitzaldi laburretik lerro bat aterateko, ulertzen dot. Esan dot, jaun-andreak, fiskalidatea ez dala erabili behar negozioen errentagarritasuna murrizteko, eta barriro esango dot, fiskalidateak oro har, zerga-sistema erabiltea debeku-tresna gisa, hau da, zerga-arauakaz mehatxua egingo deusut. Baina ez onerako, ez txarrerako; izan be, esan dot, nahizta batzuetan oso tentagarria izan, fiskalidateak be ez dauela pizgarria izan behar erakarpen-polo gisa. Orduan, ulertzen dot argumentua bihurritzea, aizu, ia laudorio bat dala, eskerrik asko, Etxepare andrea.

Benito jauna, ez dakit, galdu egin naz, parkatu. Ez dot esango zure hitzaldia populista danik, ez ez, populismoa oso errespetuzkoa da. Burutazino bat da. Gainera, zuk nire ahotan jartzen dozuz gura dozuzan burutazinoak, hitz egitera zatoz esatera ekonomian gauza jakina dala tipoa handitzen badogu, murriztu egiten dogula... Begira, benetan uste badozu kargatasa handitzeagaitik dana eginda dagoala, orduan hor itxiko dogu, % 40ko karga-tasa izan geinkelako eta % 7ko zerga-tasagaz baino gitxiago bildu geinkelako. Hor itxiko dogu, hori da dana, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare, desde el escaño.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora presidenta. Muy brevemente, argi dago aldeak ditugula fiskalidateak enpresetan izan behar dauen eraginari buruz, baina, jakina, bakarrrik esan gura dot Foru Gobernuak ekarten deuskunean, nik hasieratik ikusi dodana, interes handiagaz jarraituko dot, fiskalidate hori ODS-akaz lerrokatuta, ze pentsetan dot ODS-ek zerbait esan beharko dabela enpresa batek zer jarduera daukan eta beste batek zer jarduera daukan eta enpresen jarduerak ez dirala neutroak; eta fiskalidatea erabili gura badogu, uste dot hori ODSEk zeresan handia eukiko dabela. Zuen proposamena ikusteko zain geratzen naz..

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Gracias, señora Urkaregi Etxepare. Y Nacionalistas Vascos no va a tomar parte. Por lo que, terminado el debate, someteremos a votación primero si se toma en consideración o no el punto 8. Por lo tanto, ¿votos a favor de la toma en consideración? ¿Votos en contra? No hay abstenciones. Por lo que el resultado es el siguiente: con un total de 49 votos emitidos, 14 a favor de la toma en consideración, 35 en contra. Por lo tanto, no se toma en consideración el punto 8.

Y a continuación votamos la toma en consideración del punto 9. ¿Votos a favor? ¿Votos en contra? El resultado es el siguiente: se han emitido 49 votos, 14 a favor y 35 en contra. Por lo tanto, no se toma en consideración el punto 9.

Y agotado el orden del día, finaliza la Asamblea General. Que tengan un buen día todos.

Batzarra 16:47an amaitu da.

Se levanta la Sesión 11:47 horas.